

JARDUERA SAILKATUA ABIATZEA

OBRA-AMAIERAKO ZIURTAGIRIA

ARGIBIDEAK:

Eredu hau jarduera sailkatuak abian jartzeko eta jada abian diren jarduera sailkatuetan funtsezko aldaketak egiteko beharrezko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztean erabiliko da.

Gauzatu bitartean obra-aldaketa garrantzitsuak eta/edo jarduera sailkatuan funtsezko aldaketak gertatuz gero, aldez aurretik lizentzia eskatu eta/edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, legeztatzeke.

Ni, jauna/andrea, (e)ko
Elkargo Profesionaleko zenbakidun elkargokidea,

HONAKO HAU ZIURTATZERA NATOR:

LEHENA. jaunak/andreak (*lizentzien eta/edo erantzukizunpeko jarduera-
adierazpenaren titularraren izena*)(e)n (*kokapena*) kokaturiko
..... (*jarduera sailkatuaren xedea*) jarduera ezartzeko / aldatzeko / hedatzeko
obrak, instalazioak eta neurri zuzentzaileak gauzatu dituela, honako hauek, hain zuzen ere:

- Tokiko Gobernu Batzordearen(e)ko (*jarduera sailkaturako eta obretarako lizentzia baimendu zen data*)
saioan baimenduak.
-(e)ko (*adierazpena erregistratu zen data*) adierazpenean jasoak.

BIGARRENA. Obrak eta instalazioak aurkeztutako proiektuaren, eranskinen eta gainerako dokumentazioaren arabera egin dira, bai eta emandako jarduera- eta obra-lizentzietan adierazitako baldintzen eta/edo Alkatetzaren ondorengo kontrol-ebazpenaren arabera ere.

Aurretiko jarduera sailkatuaren espedientean aurkezturiko planoak obra-amaierako planoak dira hurrengo atalean azaltzen diren aldaketetan jaso gabeko guztirako.

(*Lizentzia Obra-amaieran horretarako eginiko txostenetan ezarritakoa justifikatzeko baldintzapean egon bada*) Ziurtagiri honen

1. Eranskinean, eginiko txostenetan eta/edo Alkatetzaren ondorengo kontrol-ebazpenean ezarritako baldintza guzti-guztien berariazko justifikazioa ageri da.

HIRUGARRENA._

(*Baldin eta lizentzian eta/edo erantzukizunpeko adierazpenean **aldaketak** izan badira*) Obrak egin bitartean, aldaketa txiki batzuk egin dira. Aldaketok ez dira garrantzitsuak eta funtsean ez diote jarduerari eragiten, eta obra-amaierako dokumentazioarekin legeztatu daitezke. Horretarako, jarraian aldaketa horiek deskribatu, eta ez direla garrantzitsuak eta jardueraren funtsezko aldaketarik ez dakartela justifikatu da, bai eta egindako aldaketa bakoitzak dagokion araudi aplikagarria betetzen duela ere:

Aldaketak(e)ko (data) obra-amaierako planoetan jasota daude, zeinak ziurtagiri honi erantsi zaizkion. 1 de 2

LAUGARRENA. Neurri zuzentzaileen eraginkortasuna egiaztatze eta araudian eta lizentzietan eskatutakoa betetzen dela egiaztatze beharrezko probak, neurketak eta kontrolak egin dira, baita ziurtagiri honetan adierazitakoa egiaztatze beharrezkoak ere.

Eginiko probak, neurketak eta kontrolak egiaztatze dokumentazioa eta eraikuntzako material, ekipamendu, sistema eta elementuen ezaugarriak egiaztatze Administrazioaren eskura izango dira establezimenduan.

Suterik gertatuz gero segurtasunarekin loturiko eraikuntzako elementuak, materialak, aparatuak, gailuak eta abarrak ezarri badira eta beren sailkapenaren edo portaeraren ziurtagiria izan behar badute (egonkortasuna, erresistentzia, suarekiko erreakzioa, iraunkortasuna...), ziurtagiri honen **2. Eranskinean** jasotako zerrendan eraikuntzako elementu, material, aparatu, gailu eta abar guztien izen komertziala ageri da, hala nola haien deskribapena, sailkapena edo portaera, bai eta beren ziurtapenaren erreferentzia ere (jakitun dagoen erakundearen edo ziurtaturiko laborategiaren izena, txosten-zk., etab.). Horrez gain, ziurtagiriaren kopia digitala (CDa, memoria digitala...) erantsi da.

BOSGARRENA. Jardueraren eta etxebizitza kaltetuenaren artean lorturiko isolamendu akustikoaren emaitza honako hau da:

Jarduerak lokal mugakideei eta/edo etxebizitzetara transmititzen dien zarataren balioak (immisioa) eta berez dagoen zaratarekin duen harremana ezagutzeko eginiko neurketak kontuan hartuta, Zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuan ezarritakoa **betetzen du**, zonifikazio akustikoari, kalitate-helburuei eta emisio akustikoei dagokienez, ziurtaturiko saiakera-laborategiaren txostenean adierazi bezala.

(Markatu instalatu bada) Barneko soinu-maila emisio sonikoan etengabeko kontrolerako aparatu bat instalatuta bermatu da; izan ere, musika-ekipamenduak aplikatzeko den araudian ezarritako mugak gainditzen dituen haren soinua eteten du.

SEIGARRENA. Egokitzapen-obren gauzatzeari dagozkion ziurtagiriak eta/edo fakturak ikusita, benetako gauzatze materialaren aurrekontua eurokoa izan dela berresten dut. *(Obren eta instalazioen guztizko kostuan sartuko da)*

ZAZPIGARRENA.(e)n *(adierazi dagokiona: establezimendua, eraikina, etab.)* eginiko obra guztiak kontuan harturik, hirigintza-araudia eta aplikatzeko den gainerako araudia **betetzen du**.

Horregatik guztiagatik, **ZIURTASUNEZ DIOT***(adierazi dagokiona: establezimendua, eraikina, etab.)* **ETA BERTAKO INSTALAZIOAK EGOKIAK DIRELA**

.....*(adierazi garatu beharrekoko jarduera)* **JARDUERA SAILKATUA GARATZEKO.**

(202/2002 FDN ezarritako Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren katalogoan eta ondoren 656/2003 FD bidez eginiko aldaketan jasotako jarduera bada) Establezimenduak gehienez ere... pertsona har ditzake publikoaren eremuan, eta guztira... pertsona lokalean.

Zangozako Udalaren esanetara nago arrazoituta eskatzen didan edozein azalpen edo/eta justifikazio emateko.

Zangozan, (e)(a)n

(teknikariaren sinadura)

Jakinaren gainean,

(jarduera-adierazpenaren egilearen sinadura, izena, bi abizen eta NANA adierazita)

